



**GURUTZETA OSPITALEKO  
AMAGANDIKO EDOSKITZEA  
2004KO ARAUTEGIA**

**OINARRIZKO  
ESKULIBURUA**

## AMAGANDIKO EDOSKITZEA 2004ko ARAUTEGIA

1997ko ekainean Eusko Legebiltzarrak ez legezko proposamen bat onartu zuen, hau zioena: *"OMEren eta UNICEFen irizpideen arabera Eusko Legebiltzarrak onuragarria eta komenigarria ikusten du amaren eta umearen osasunerako, edoskitze naturalaren kultura berrezartzea, eta hori dela-eta Eusko Jaur-laritzako Osasun Sailari eskatzen dio bultzatzeko eta babesteko amagandiko edoskitzea, ama bakoitzaren askatasunak merezi duen errespetuarekin"*.

### SARRERA

Gurutzetako Ospitaleak OMEren eta UNICEFen gomendioei jarraitzea erabaki du, gomendio hauek "Amagandiko Edoskitzearen Babesa, Sustapena eta Laguntza: Amaetxeko Zerbitzuetako eginkizun berezia" izeneko adierazpenean jasota daudelarik. Bertan, "Hamar urrats edoskitze natural zoriontsuaren alde; Haurren Lagunak diren Ospitaleen Ekimena" izeneko dekalogoaz azaltzen da, eta adierazten da zein aldaketa egin behar diren amaetxeetan amagandiko edoskitzearen aldeko giroa lortzeko.

**2004ko Arautegia** edoskitzeari buruzko idatzizko araua da, hamar urratsak adierazten dituena, eta Haurren Lagunak diren Ospitaleen Ekimeneko kide izan nahi duten ospitaleetan egon behar duena. Honen arabera, *"erabilgarri egon behar du, amak eta haurtxoak atenditzen dituen pertsonalak kontsultatu ahal izateko; ikusgai egon behar du amak, bularreko haurrak edo haurrak atenditzen direneko Ospitaleko alde guztietan, pazienteek eta pertsonalak ondoen ulertzen duten hizkeran azalduko delarik"*.

### HELBURUA

Arautegi honen bidez, funtsean, amak, jaioberriak eta bularreko haurrak atenditzen dituzten profesional sanitario guztien jarduerak egokitu eta bateratu nahi da.

### ARAUTEGI HAU OINARRI HARTUTA:

- Profesional sanitario guztiek bultzatuko dute amagandiko edoskitzea, eta beraien gaitasun profesionalaren arabera prestakuntza egokia jaso beharko dute, ama bular-emaileei atentzioa emateko.
- Ospitale honetan ez da amaren esnearen ordezkoren publizitaterik onartzen. Egutegi, idazmahaiko material eta abarren bidez egiten den esne artifizialaren logotipo komertzialen erakusketa debekatzen da Unitate Asistentzialetan.
- Esne artifiziala saltzen duten enpresek emandako liburu edo liburuxkarik ez da onartzen. Heziketako materialak Amagandiko Edoskitzearen Batzordeko zuzendaritza-pean bakarrik banatuko zaizkie amei.
- Ez da informaziorik taldeka emango esne artifizialaren prestaketari buruz. Euren seme-alabei esne artifiziala eman nahi dieten gurasoek banakako informazioa jasoko dute biberioien prestaketari buruz.
- Dena dela ere, gurasoen erabakia errespetatu egin beharko da amagandiko edoskitzearen aldeko aukera hartzen ez dutenean.

### 10 URRATS EDOSKITZE NATURAL ZORIONTSUAREN ALDE "HAURREN LAGUN DIREN OSPITALEAK" EKIMENA

Amagandiko edoskitzearen babesa, sustapena eta laguntza: Amaetxeko Zerbitzuen .eginkizun berezia. OME/UNICEF-ek batera egindako komunikatua. OME-k argitaratua, 1211 Ginebra 27, Suiza, 1989.

Erditze-Aldeko eta Jaioberrietako zerbitzu guztiek honako hauek **bete beharko dituzte**:

1. Amagandiko edoskitzeari buruzko ARAUTEGI IDATZIA: edoskitze naturalari buruzko politika idatzi baten jabe izatea, osasuna zaintzen ari den pertsonal guztiari sistematikoki ezagutzera emango zaiona.
2. Pertsonal sanitario guztia trebatzea, politika hau praktikan jartzeko gai izan dadin
3. Haurdun guztiei jakinaraztea, edoskitze naturalaren onurak zein diren eta nola jartzen den praktikan
4. Amei laguntza ematea, erditu eta hurrengo ordu erdian bularra ematen hasteko

5. Amei irakastea nola eman behar dioten bularra haurrari
6. Jaioberriei AMAREN ESNEA besterik ez ematea, bestelako janari edo edaririk eman gabe, medikuak kontrakoa agindu ezean
7. Amaren eta haurraren egun osoko bizikidetzaren bideratzea
8. Amagandiko edoskitzea bultzatzea, haurraren eskariaren arabera
9. Bularra hartzen ari diren haurrei txupete artifizialik ez ematea
10. Edoskitze naturalaren aldeko taldeak osatzen laguntzea, eta amak talde hauekin harremanetan jartzen ahalegintzea.

Jarraian datozen JOKATZEKO MODUAK, aldeka aurkeztuak (Erditze-Aldea, Erdiberrien Aldea, Jaioberrien Aldea eta Bularreko Haurren Aldea), inplikaturako alde guztietan ezagutu behar dira, ahalik eta koordinaziorik handienarekin eta elkar ezagutzarik onenarekin jokatzeko. FUNTSEZKO DA INFORMAZIO HAU 2004ko ARAUTEGIKOAREKIN OSATZEA.

## **ERDITZE-ALDEA** (Ikus 2004ko Arautegia.12-13 orr.)

### **HELBURU ZEHATZAK:**

- Amaren eta haurraren arteko elkartze goiztiar eta jarraitua
- Erditzeko gelan lehendabiziko bular-ematea zaintzea eta laguntzea..

### **JOKATZEKO MODUA:**

#### **Erditze baginala**

Emagina arduratzen da erditu eta berehala amagandiko edoskitzeari laguntzeaz, eta horren inguruko atentzioa emateaz.

Erditu eta berehala, jaioberria **azalez azal** jarriko da amaren gainean, eta oihal batez estaliko da, hoztu ez dadin.<sup>1</sup>

Normalean, Jaioberriak Bizkortzeko Unitateko pertsonalak (erizaintzako laguntzailea edo erizaina) gainbegiratu du praktika hau, eta berariaz esango dio amari haurrari beroa emateko eta, hala nahi badu, bularra ematen hasteko. Pertsonal honi ere badagokio haurraren segurtasuna zaintzea, amaren besoetan dagoen bitartean; hala ere, azalpenak eman ahal zaizkio aitari zaintza berak egin dezan. Edozein modutan ere, saiatu beharko da ama eta haurraren arteko ikus-harremana ez galtzen, eta, beharrezkoa bada, haurra sehaska batean jarriko da amaren

#### **Zesareak anestesia erregionalarekin**

Erditze baginalan bezala jaioberria amaren toraxean jartzen saiatuko da, amaren azalarekin kontaktu zuzenean.

#### **Zesareak anestesia orokorrarekin**

Egoera hauetan, jaioberria Jaioberriak Bizkortzeko Unitatean egongo da, amaren esna-baldintzak modu egokian atentitzea ahalbidetu arte.

#### **Anestesia Ondoren Bizkortzeko Unitatea**

Jaioberria amarekin egongo da, Unitatean egon behar duen denbora osoan.

Anestesia Ondoren Bizkortzeko Unitateko pertsonala arduratuko da asistentziaz, Jaioberriak Bizkortzeko Unitateko pertsonalaren laguntzarekin.

Ama eta haurra elkarrekin eramango dira solairura.

### **Eranskina**

Lehenago aztertutako egoeretan, ulertu behar da amak onartu egiten duela haurrerekiko kontaktu goiztiarra, eta emakumearen egoera klinikoak posible egiten duela, biotako inorentzat arriskugarria ez delarik

### **ERDIBERRIEN ALDEA (Ikus 2004ko Arautegia.14-15 orr.)**

#### **HELBURU ZEHATZAK:**

- Amagandiko edoskitzeren alde egiten dutenen kopurua handitzea, amagandiko edoskitze eskusiboarena, bereziki, eta elikagai osagarriak era egokian kontrolatzea.
- Alta jaso baino lehen bularra ematen duten ama guztien edoskitzerako gorputz-jarrera egokia dela bermatzea ,

#### **JOKATZEKO MODUA: ERDIBERRIAK SOLAIRURA HELTZEAN**

- Historia klinikoan zer elikadura-mota egin nahi duen argi adierazita dagoela egiaztatu beharko da.
- Jaioberriari irekitzen zaion grafikoan, argi jarri beharko da zein edoskitze-mota nahi den ingresa-tzean: **Amagandiko edoskitzea nahi du, edoskitze artifiziala nahi du edo ezbaian dago edoskitze-motaz.** Ezbaian badago, bularra ematera animatuko da ama, eta lagunduko egingo zaio. Ondorengo egunetan, ideia aldatuko balu, egoera berria grafikoan jarriko litzateke, data jarrita.
- Amagandiko-edoskitzearen kasuan, bereziki hitz egingo da jarrera egokiaz eta haurraren eskariaren araberako edoskitzeaz

### **EGONALDIAN (Ikus 2004ko Arautegia.15-16 orr.)**

- Unitatean hartu ondoren, animatu egingo da ama berak dituen zalantzak adieraz ditzan.
- Bularra ematen duten amei gogoratu behar zaie lehenengo asteetan txupeterik ez dela erabili behar.
- Formalki gaitzesten dira hasierako esne artifizialezko gehigarri ohikoak. Familiek eskatzen badute, kasuz kasu aztertuko da.
- Arrazoi medikoengatik bada (adib.: gehiegizko pisu-galera), amarengandik berarengandik esnerik lortu ezin denean soilik aginduko dira hasierako esne artifizialezko gehigarriak. Hau egiten den guztietan, gehigarriak eta datak grafikoan idatziko dira.
- Kaka eta txiza egiteak argi apuntatu behar dira. Datu hauen garrantziaren berri eman behar zaie amei, apuntatu gabe ez geratzeko beraiek edo senideek zenbat aldiz aldatzen dituzten haur-oihalak. Lehenengo 2 egunetan, eguneko 2 aldiz egin ohi dute kaka eta 2 aldiz txiza. Maiztasuna handituz doa, eta 7. egunean 4-5 kaka-egite eta 5-6 txiza egite izaten dira.
- Egonaldian zehar, behin eta berriro hitz egin behar zaio amari jarrera egokiaren eta eskariaren araberako edoskitzearen garrantziaz. Normalean, jaioberriak, lehenengo 2 egunetan, 6 hartualdi egin ohi ditu eguneko, eta ondorengo egunetan 8 hartualdi edo gehiago eguneko. Hasieran, eskari-erritmoa oso irregularra izan daiteke, geroago ordenatzera jotzen

### **OSPITALETIK IRTETEAN (Ikus 2004ko Arautegia 16 orr.)**

- Erreparatu egin behar da zenbat pisu galtzen duen eta zein erritmorekin, zenbat aldiz egiten duen kaka eta txiza. Kontu egin behar zaio edoskitze-teknikari eta egiaztatu behar da bularrek esnea badutela eta ama seguru sentitzen dela.
- Irten ondoren mukosen hezetasunari erreparatu beharko zaio baita kaka eta txiza-egite kopuruari ere.
- Jarraibideak emango zaizkio amari Ospitaletik irteten denerako: pediatrarengana joatea eta, nahi badu, edoskitzearen aldeko taldeekin biltzea.

**(Euskadiko Esne-liga: informazio-telefonoak: 94 499 41 46, 94 432 03 48).**

## ESKARIAREN ARABERAKO EDOSKITZEA

Jaioberriak, zenbait seinalaren bitartez, goseak dagoela adierazten du. Seinale hauek ezagutu ahal izateko, amak hurbil eta seinaleei adi egon behar du. Hauek dira nabarmendu ahal ditugun seinaleak:

- Jaioberriak ahora eramaten ditu eskuak edota luzatu egiten da, ahozabalka bezala dabil, besoak mugitzen ditu.
- Xurgatze-mugimenduak egiten ditu, eta ahoan edo masailean ukituz gero, nabarmenki bueltatzen da hatzaren aldera. Indarrez xurgatzen dueneko aldiak izaten ditu.
- Ez dugu itxaron behar negarrez hasi arte, zeren eta horrek esan nahi baitu berandu gabiltzala: gose-seinalea da, baina berandukoa, eta horrek zaildu egiten du bularrean jartzea..

### EDOSKITZEKO GORPUTZ-JARRERA

#### ZUZENA



- Kokotsa eta sudurra bular gainean
- Ahoa zabal-zabalik
  - Beheko ezpaina "barrukoz kanpora"
  - Edoskaldiak eta atsedanak
  - Irenstean amak entzun ahal dio

#### OKERRA



- Bular-muturrari baino ez dio hel-tzen
- Bular-muturra zapaldua edo urratua geratzen da
  - Hartualdia iraun bitartean eta gero ere mina izaten da.
  - Baliteke bularrak kongestionatzea

## JAIOPERRIEN UNITATEA

### HELBURU ZEHATZAK:

- Ama haurrarekin ez dagoeneko edoskitze-murrizketa mugatzea.
- Ama-esnea ateratzen eta ondo erabiltzen laguntzea
- Posiblea den heinean zuzeneko edoskitzea erraztea.

**JOKATZEKO MODUA:** (Ikus 2004ko Arautegia.16 - 18 orr.)

- Edoskitzen hasi ez den jaioberri batek ingresua egitean, galdetu egingo da bularra emateko asmorik dagoen ala ez, eta historian idatziko da.. Familiaren aldetik zalantzarik izanez gero, animatu egin behar da bularra ematera eta azalduko da nola hasi behar den. Erizainak familiari azalduko dio zein den bularra emateko unerik egokiena, baita tokirik egokiena ere, sehaskaren oinaldean edo edoskitzeko gelan.

Lehenengo hartualdietan, pertsonal asistentzialak amari irakatsiko dio nola jarri behar duen haurra bularrean, azalez azaleko kontaktua bilaturik, eta zein den jarrerarik egokiena hartualdia eraginkorra izan dadin. Amak Unitatetik alde egin behar duenean, esnea ateratzea gomendatuko zaio, hurrengo bisitaldian ekartzeko. Horretaz gainera, erizaintzako pertsonalak Jaioberrien Unitateko araei buruzko informazio-gida emango dio familiari eta bertan esnea atera, jaso, kontserbatu eta garraiatzeari buruzko jarraibideak agertzen dira

- Erizainak amari irakatsiko dio esnea nola atera (eskuz edo mekanikoki). Ahal bada esnea etxean aterako da. Kasu honetan, esnea garraiatzeko behar diren ontzi esterilak emango zaizkio. Ospitalean jarraitzen badu, esnea ateratzeko tresna elektrikoa eskuratuko zaio.
- Elikadura osagarria beharrezkoa bada, gurasoei adieraziko zaie zein diren horretarako arrazoiak. Historian, eman beharreko osagarri-mota eta horretarako arrazoiak apuntatuko dira. Lehenengo egunetan, eta haurra edoskitzeari guztiz egokituta ez dagoen bitartean, osagarriak xiringaz edo edalontziz emango dira. Haurrak esnea zunda bidez jasotzen badu ere, amari esnea ateratzea gomendatuko zaio, ospitalean zein etxean. Medikiak familiari esango dio noiz hasi ahal den ahozko elikadurarekin.

## TXUPETE ETA TETINAK

- Txupete eta tetinarik ez erabiltzeko aholkatu behar da, gutxienez amagandiko edoskitzeari guztiz egokituta egon arte (2-3 aste). Erabiltzen badira, oztopatu egiten da aho-dinamika eta murriztu egiten da bularra xurgatzen deneko denbora. Amak bularra eman nahi duenean eta osagarriak aginduta daudenean, hauek xiringa edo edalontziz emango dira. Haurra urduri edo gose dela ematen badu, txupetea erabili beharrean, amagandiko edoskitzearen teknika baloratu da eta, hala behar balitz, egokitu.
- Txupetea egokitzat jotzen da, aldi luzeetan zundaz elikatutako haurren kasuan, xurgatze ez-nutritiboa estimulatzeko.

Pertsonal asistentzialak familiari jakinaraziko dio harremanetan jar daitekeela **Euskadiko Esne-Ligarekin (Informazio-telefonoak: 94 499 41 46, 94 432 03 48)**. Irabazi-asmorik gabeko elkarte honek informazioa eta laguntza ematen die bularra eman nahi duten amei.

## BULARREKO HAURREN ALDEA (Ikus 2004ko Arautegia.19 orr.)

### HELBURU ZEHATZAK

- Amagandiko edoskitze eskusiboari 6 hilabetetaraingo eustea
- Amagandiko edoskitze mistoa edo elikagai osagarriekin 6 hilabeteetatik aurrera eta adin-mugarik gabe sustatzea

### JOKATZEKO MODUA

- Bularra hartzen ari diren eta ingresua egiten duten haurrek amagandiko edoskitzearekin jarraitu behar dute, aurkako indikazio medikorik ez badago. Erizainak familiari azalduko dio zein diren bularra emateko unerik eta tokirik egokienak.
- Bularra ematen jarraitu behar ez bada, medikuak familiari jakinaraziko dio **zein arrazoi dagoen** horretarako, eta noizko aurreikusten den berrirori hasi ahal dela. Esnea atera eta kontserbatzea gomendatuko da. Erizainak amari irakatsiko dio esnea nola atera (eskuz edo mekanikoki). Ospitalean jarraitzen badu, esnea ateratzeko tresna elektrikoa eskuratuko zaio. Etxean ateratzen bada, esnea garraiatzeko behar diren ontzi esterilak emango zaizkio. Horretaz gainera, erizaintzako pertsonalak Bularreko Haurren Unitateko araei buruzko informazio-gida emango dio familiari; eta, esnea atera, jaso, kontserbatu eta garraiatzeari buruzko jarraibideak. Amak Unitatetik alde egin behar duenean, esnea ateratzea gomendatuko zaio, hurrengo bisitaldian ekartzeko.
- Elikadura osagarria beharrezkoa bada, gurasoei adieraziko zaie zein diren horretarako arrazoiak. Historian, eman beharreko osagarri-mota eta horretarako arrazoiak apuntatuko dira. Haurrak esnea zunda bidez jasotzen badu ere, amari esnea ateratzea gomendatuko zaio, ospitalean zein etxean. Medikiak familiari esango dio noiz hasi ahal den aho-elikadurarekin.

- Txupetea egokitzen jotzen da, aldi luzeetan zundaz elikatutako haurren kasuan, xurgatze ez-nutritiboa estimulatzeko.
- Amaren esne-produkzioa murrizten bada, lasaitzen saiatuko gara eta azalduko diogu produkzio hori gehitzeko moduak badaudela. Mediku arduradunak egoera baloratu eta amagandiko edoskitzea berriro eragiteko jarraibideak ezarriko ditu.

## AMAGANDIKO EDOSKITZARO ON BATERAKO AHOLKUAK

- **Lehenengo hartualdia** erditu eta berehala egitea
- **Eskariaren araberako edoskitzea:** haurrari nahi beste aldiz eta nahi besteko denbora utzi behar zaio bularra hartzen, sarritan eskatzen badu ere.
- **Txupeteak eta tetinak erabiltzea** haurra edoskitzera egokitzeke oztipoa izaten da. Lehenengo egunetan ez dira erabili behar.
- **Haurrari bular batetik eman behar zaio** ase arte. Jarraian bestetik eskaini eta ez arduratu erabat husten ez badu. Hurrengo hartualdian, beteago dagoen bularretik hasiko zaio ematen.
- **Lehenengo 6 hilabeteetan** haurra amaren esnearekin soilik elikatu ahal da.
- Lehenengo 6 hilabeteak igaro ondoren **elikagai osagarriak** erabiltzen hasi ahal da eta hala nahi iza-nez gero bularra ematen ere jarraitu.
- **Emakume orok** bularra eman ahal dio haurrari, bularren tamaina eta bular-muturren forma edozein delarik.
- **Amagandiko edoskitzeak** erditze-ostean **emakumea suspertzen** laguntzen du.

